



## KiVa programa

- *Bullying* edo eskola-jazarpena prebenitu eta murrizteko programa, datuetan oinarritua
- Turkuko Unibertsitateak garatua, Finlandiako Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren finantzaketaz.





## KiVa programa

- Gure ikastolako langileek KiVa programa ezartzeko prestakuntzaz jaso dute:
  - Irakasleek
  - Jangelako langileek
  - Eskola kiroleko entrenatzaileek



- KiVa ez da “proiektu” iragankor bat, baizik eta jazarpena prebenitu eta murrizteko jardunbide iraunkor bat





## Zer da 'bullying' edo jazarpena?

- Portaera mingarria/tratu umiliagarria, egiten dena
  - nahita
  - behin eta berriz, errepikatu egiten da
  - erlatiboki babesgabea den edo botere txikiagoa duen pertsona baten aurka



5



## Zer ez da 'bullying' edo jazarpena?

- Ez da jazarpena...
  - liskar bat
  - eztabaida bat
  - borroka bat
- Jazarpena harreman zapaltzaile baten adierazpena da; botere- eta indar-abusua
- Batez beste, eskola-adinean dauden haurren %10 sistematikoki jazarriak izaten dira



6



## Jazarpen motak

- Gehienetan, jazarpena ahozkoa izaten da: iraintzea, jendaurrean barregarri uztea...
- Zeharkako jazarpena da, esaterako, pertsona bat taldetik baztertzea eta hari buruz zurrumurru gaiztoak zabaltzea
- Jazarpen fisikoa da, adibidez, bultzatzea, jotzea eta ostikatzea
- Ziberjazarpena jazarpen mota nahiko berria da, ordenagailuak eta mugikorrak erabiliz gauzatzen dena



7



## Jazarpena ez da soilik jazarle eta biktimen kontua

- Jazarpenezko gertakari gehienetan, ikaskide talde bat bertan izaten da
- **Funtsezkoa da lekuko diren ikaskideek nola erreakzionatzen duten**, horrek baldintzatuko baitu...
  - jazarritako haurra nola sentitzen den
  - jazarpen-egoerak zer bilakaera duen
  - jazarpenak zenbat irauten duen




8



## Taldearen garrantzia

- Rolak jazarpen-egoeretan (Salmivalli et al., 1996)
- Zer egiten dute beste ikasleek norbait jazarria denean?



9



## Jazarpena eta taldea

- Haur gehienek ez dute jazarpena ontzat hartzen; hala ere, askok jazarlearen portaera bultzatzen dute, **barre eginez edo isilik egonda**
- Jazarpenarekin lotutako taldeko arauak sarritan ezartzen dute ezin zarela biktimaren laguna izan; zugandik ez da “espero” biktima ongi hartzea



10



- Garrantzitsua da ikasleek ulertzea beraien jokabideak eragina izan dezaketela!

– **“Elkarrekin jazarpena geldiaraz dezagun!”**

**Hori da KiVa programaren oinarrian dagoen ideia nagusia**



11



## **KiVa programaren helburuak**

- Jazarpena murriztea
- Jazarpen-egoerak gerta daitezen eragozte
- Jazarpenak eragindako ondorio negatiboak apaltzea





## Zer esan nahi du KiVa programaren parte izateak?

- Prebentzio-ekintzak (ikasmaterialaren bidez)
  - Ikastolako ikasle guztiak aintzat hartuta
- Agerian geratu diren jazarpen-kasuei aurre egitea (KiVa taldearen bidez)
  - jazarpenean parte hartu duten ikasleen ardura da



## KiVa programa

KiVa-k bi alderdi hartzen ditu:

PREBENTZIOA

JAZARPEN KASUETAN  
ESKUHARTZEA

LHko ikasmateriala

KiVa taldearen  
eskuhartzea:  
jarrerak aldatu



14



## Prebentzio-ekintzak (orokorrak): ikasleen ikasgaiak

- Maila guztietan ematen dira , LH 1etik 6ra
- Jazarpenari buruzko 10 ikasgai ikasturte osoan zehar:
  - gaiak, besteak beste:
    - besteak errespetuz tratatzea,
    - pertsonen arteko desberdintasunak onartzea,
    - emozioak identifikatu eta erregulatzea, t
    - aldearen presioari eustea, j
    - azarpena identifikatzea
    - eta jazarpenaren lekukoa izatean edo jazarria izatean modu konstruktiboan jokatzeara



## KiVa ikasmateriala

- 45-50 minutuko saioak.
- Tutoretza orduetan.
- Bi astetik behin, tutoretzako beste gaiak ere lantzeko. Orain ez da KiVa bakarrik landu behar tutoretzan.







## **Ikasleen ikasgaiak**

- Ikasgaien helburuak:
  - Jazarpen-egoeretan taldeak duen garrantzia ulertzea
  - Biktimekiko enpatia handitzea
  - Biktima babesteko eta taldean jazarpena eragoztearen ardura hartzeko moduak ikastea





## **Ikasleen ikasgaiak, 1. unitatea**

- Elkar ezagutu dezagun!
- Emozioak
- Gure gelan, denok barne!
- Desberdintasuna aberasgarria da
- KiVa eskolan jazarpenik ez
- Guk ez dugu jazarpenean parte hartuko
- Jazarritako haurrak zure babesari behar du
- Ez naiz jazarria izango!
- Literatura ikasgaia
- KiVa kontratua

Eztabaidak, eginez ikasi, film laburrak, lanak...



19



## **Ikasleentzako ikasgaiak, 2. unitatea**

- Errespetua denontzat
- Taldean
- Identifikatu jazarpena!
- Ezkutuko jazarpen motak
- Jazarpenaren ondorioak
- Taldearen parte-hartzea jazarpenean
- Jazarpenari talde moduan aurre egitea
- Zer egin dezaket jazarria banaiz?
- KiVa eskola – egin dezagun elkarrekin!
- Zer moduz ari gara?

Eztabaidak, eginez ikasi, film laburrak, lanak...



20



## KiVa arauak

- Ikasturte osoan zehar taxutuak
- Gai bat landu ondoren, harekin lotutako arau bat adosten da
- Ikasturtearen amaieran, arau guztiak bilduko dira KiVa kontratua osatzeko



## KiVa jokia

- Eskola-jazarpenaren aurkako ordenagailu-jokia
- Ikasleak ikasgaiak ematean eta/edo ikasgai batetik besterako denbora-tarteetan jardun daitezke (eta etxean, Internet izanez gero)
- Ikasgaietan ikasitako kontzeptuak berrikusten dituzte ikasleek (esaterako, ikasgelaren KiVa arauak), eta jazarpenaren aurkako ekintzak praktikatzan dituzte





## KiVa jokoko zenbait lagun




23



## Gure eskola KiVa ikastola dela erakusten duten seinaleak

- Posterrak ikastolako hormetan
- KiVa txalekoak jolas-orduko begiraleentzat
  - horiek aditzera ematen dute jazarpenaren auzia serio hartu dela, eta begiraleen betebeharra dela guztien segurtasuna bermatzea







## Eskola-jazarpenari aurre egitea

- KiVa taldea
  - Programa honetan parte hartzen duen ikastola bakoitzak jazarpen-kasu larriei aurre egiteko KiVa talde bat du
  - Taldea 3 irakasle eta zuzendariak osatzen dute: Aitor Dorronsoro, Mertxe Etxeberria, Elisa Manterola eta Zigor Saizar



## KiVa taldearen egitekoak

- Bullying kasu bati aurre egin gelako tutorearekin batera.
- Bullying kasuak dokumentatu (INPRIMAKIAK).
- KiVa taldeak ez die erantzungo ikastolako arazo guztiei! BULLYING KASUAK SOILIK!





## Eskola-jazarpenari aurre egitea

- Eskolak ustezko jazarpen-kasu baten berri duenean...
  - haren berri izan duen lehenak tutoreari esan eta harek aztertuko du benetan jazarpena den, eta, beharrezkoa bada, KiVa taldearen esku utziko du kasua. Zuzenean KiVa taldearekin kontaktua ere egin daiteke
  - KiVa taldeko kideek...
    - egoeraz hitz egingo dute jazarritako ikaslearekin
    - egoeraz hitz egingo dute jazarpenean parte hartu duten ikasleekin
    - kasuaren jarraipena egiteko hizketaldiak antolatuko dituzte haurrekin
    - gurasoak informatu
  - Gelako irakasleak...
    - biktimaren zenbait ikaskiderekin bildu eta biktima babestera animatuko ditu





## Eskola-jazarpenari aurre egitea

### 1. pausoa:

- Ustezko jazarpen-kasu bat dagoenean, haren berri izan duen lehen pertsona helduak ikasgelako tutoreari esango dio eta honek...
  - TUTOREAK benetan jazarpena den ala ez aztertuko du.
  - beharrezkoa den oinarritzko informazioa bilduko du.
  - kasua KiVa taldera bideratuko du, beharrezkoa denean.



31



### 2. pausoa: Biktimarekin bilera

*KiVa taldeko kide bat bilduko da biktimarekin:*

1. Babesa eman!
2. Informazio zehatza jaso: zer gertatu den, noiz, non, nork egin.
3. Parte hartu ez duten ikaskideen izenak eskatu (defendatzaile posibleak)
4. Kasuaren jarraipena egingo dela ziurtatu eta tutorea berekin berriz bilduko dela.








### 3. pausoa: Gelako tutorea biktimaren ikaskideekin biltzen da: “zuen laguntza ezinbestekoa da”

- Soziograman ateratzen diren “lider” onekin, prosozialak.

Bullying kasuak kudeatzen. Sistematiko al da?



### 4. pausoa: jazarpenean parte hartu duten ikasleekin bakarkako hizketaldiak

*KiVa taldeko bi kideek egingo dituzte  
erasotzaileekin bakarkako hizketaldiak:*

1. Ikaslea bileran zergatik dagoen aurkeztuko zaio: arazoa.
2. Ikasleak egoera aldatzeko **konpromezua hartu eta proposamena egin** behar du.
3. Argi utzi behar zaio **jarraipena egingo zaiola berari eta egoerari.**





## 5. pausoa: jazarpenean parte hartu duten ikasleekin talde-hizketaldia

1. Bakoitzak zer konpromiso hartu zuen aurreko hizketaldian?
  - Bakoitzak hartu dituen konpromisoak besteen aurrean irakurri.
2. Hurrengo jarraipen-hizketaldia zehaztu.



## 6. pausoa: Jarraipen hizketaldia biktimarekin

- Bullyinga desagertu al da?
  - Ikastolan zer moduz? Eta kalean?
- Egoerak hobera egin al du?
  - Biktimaren egoera hobetu da?





## **7. pausoa: Jarraipen hizketaldiak taldearekin**

- Denek bete al dute euren konpromisoa?
- Zer egin bullyinga berriz ager ez dadin?



## **Zer egin Bullyinga gelditzen ez bada?**

-Ez da beharrezkoa behin eta berriz jarraitutako prozesua errepikatzea.

-Zein bide erabili dituzte zentroek KiVa izan aurretik?.

- Familiekin bilerak.
- Ikuskaritza.
- Hezkuntza Sailaren protokoloa.





## Lankidetza gurasoekin

- Taldeak bere gain hartutako kasuen berri emango die gurasoei
- Beharrezkoa izanez gero, litekeena da gurasoei ikastolara etortzeko eskatzea, kasuari buruz hitz egiteko. Edonola ere, hori ez da prozedura arrunta.
  - Lehendabizi, beren **portaera** aldatzeko aukera ematen zaie ikasleei



## KiVa taldeek bideratzen dituzten hizketaldiak eraginkorrak dira

- Programaren fase pilotuan, kasuen %98n biktimaren iritziz egoerak hobera egin zuen!





## Gurasoen Gida

- Gurasoen Gida KiVa webgunean eskuragarri dago
- [kivaprogram.net/basque](http://kivaprogram.net/basque)
  - eskola-jazarpenari buruzko informazioa
  - informazio zehatzagoa, gurasoek jakin dezaten nola lagundu dezaketen jazarpena murrizten eta jazarritako beren haurrari babesa ematen



## KiVa-k lortzen al ditu esperotako emaitzak?

- Finlandiako Turkuko Unibertsitateak hainbat ikerketa egin ditu KiVa-k programaren fase pilotuan (2007-2009) eta programa herrialde osora zabaltzean (2009tik aurrera) lortutako emaitzen inguruan
- Datuek garbi erakusten dute **programak jazarpenaren eta biktimizazioaren maiztasuna murrizten duela**





## “Albo-kalterik”?

- “Albo-kalte” positibo ugari
- Eskola-giro hobea
  - Nire ikastolan giro ona dago
  - Nire klasean ohikoa da besteei laguntzea
  - Nire gelan egoteaz pozik nago
- Ikasteko motibazio handiagoa
  - Ikasteak pozik jartzen nau
  - Gauza asko ikasi nahi ditut
  - Uste dut eskolan ongi nabilela



## Zer egin dezakete gurasoek jazarpena murrizteko?

- Jazarpen-egoera guztiak serio hartu
- Eskolarekin lankidetzan jardun
  - jazarpen-kasuren baten berri izanez gero, eskolari jakinarazi
  - eskolak auzia behar bezala bideratuko duen **konfiantza** izan
- Zure seme edo alabarekin jazarpenaz hitz egin, baina jazarria ez bada edo besteei jazartzen ez bazaie ere
  - zer egin jazarpena gertatzen ari dela ikusten baduzu?
    - Animatu ditzagun haurrak jazarrenean ez parte hartzera, biktimak babestera eta jazarpenik ikusten badute helduei esatera!





## **GALDERA - ERANTZUNAK**



**MILA ESKER!**



